

Egixarretik MAUTHAUSENERA

Jose Mari Agirre Salaberria "Egixarre", 1919-03-25 | Palma, 2009-09-06

ahaztuen
ORDIMENA

MARKINALDEKO FRENTEA 1936



SUSTRAIAK HAN DITUENAK

*Nekez uzten du bere sorterrria
sustraiak han dituenak.
Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak
ez bada abaildu eta oholetan.*

*Ez du niniak begia uzten
ez bada erroi edo arrubioen mokoetan.
Nekez uzten du gezalak itsasoa
ez hare harriak basamortua.*

*Ez du liliak udaberria uzten
ez elurrak zuritasuna.
Bere sorterrria nekez uzten du
sustraiak han dituenak.*

Joseba Sarrionandia

Egixarretik MAUTHAUSENERA

Jose Mari Agirre Salaberria "Egixarre", 1919-03-25 | Palma, 2009-09-06



Hezur eta azal

Horrela irudikatzen ditugu nazien kontzentrazio esparruetan hiltzera preso sartu zituztenak.

Milaka begirada lauso galduak, soin argalduetan jantzi-trapuak nasai, papar-hegalean kondena erausten zuen zenbaki josiari ihes egin ezinda zenbaki huts izatera murriztuak, egunero estuasun larrian.

Zorionez, ezagun zaizkigu nazien kontzentrazio eremuetan ateratako argazki eta irudi asko. Basakeria hura salatu eta genozidioaren aurkako frogak gordin bilakatu baitziren 1945etik aurrera, nazien aurkako epaiketetan.

Horregatik, XX. mendeko faxismoak izan duen bilakaeraz jabetzeaz, haren dimentsio izugarriak gain egingo digu, edota, esaterako, naziek eragindako basakeria barneratu ezina zaigu. Hala, urrutiko kontuak direla begitandu arren, pelikuletan bakarrik agertzen diren horietakoak, faxismoa bere adierazpenik gordinenean gure ingurukoek ere pairatu behar izan zutela jabetu behar gara. Orain arte honen berri euren senideek edo gertukoek bakarrik izan badute ere, hainbat euskal herritar eraman zituzten kontzentrazio esparru hauetara.

Zentzu honetan, Egixarretik (Etxebarria) Mauthausengo (Austria) kontzentrazio esparrura dagoen bidea argitu nahiko genuke, milaka deportaturen artean, Jose Mari Agirre Salaberriari merezi duen errekonozimendu eta omenaldia eskainiz; hark pairatutakoa erreparatzeko bidean egiari hitzak jarri eta berak azken urteetan egin zuen legez gertatutakoa jendartearen transmitituz, berriro horrelakorik gerta ez dadin, etorkizunean balio demokratiko indartsuak izango dituen jendarte sendoa izan dezagun.

Jose Mari Agirre Salaberria Etxebarrian jaio zen, 1919ko martxoaren 25ean. Raimunda Salaberria Zelaiaren (Etxebarria, 1895 - Châtellerault, 1987) eta Doroteo Agirre Astigarragaren (Elgoibar, 1898 - Girona, 1937) seme nagusia zen.



Jose Mari, guraso eta neba arrebeekin. (Mercedes Agirre Salaberria)

Jose Mari**k** beti aipatu izan zuen haurtzaroan «Egixarre» izan zuela ardatz eta erdigune. Bertan jaio zen bera, bai ama zein arbasoak ere. Hala ere, urte gutxi batzuk besterik ez zituenean, gurasoek Irunera (Gipuzkoa) aldatzea erabaki zuten. Izeba Maria, amaren arreba, aroztegi baten jabe zen Federiko Etxeparerekin ezkondu zen. Mugako hiriaren oparotasun ekonomikoak, Doroteok arotz gisa lan egiteko aukerak, eta bi familiak etxe bereko etxebizitza banatan bizi ahal izateak bultzatu zituen azkenean Raimunda eta Doroteo. Beraz, familia Santiago auzoan kokatu zen, oraindik Bidasoa ibaiaren ertzean eraikitako etxeek marinel kutsua mantentzen duten lekuan, mugaren alboan. Hemen hazi zen Jose Mari eta hemen jaioko ziren bere zazpi neba-arrebak¹.

Esan daiteke Jose Mariren haurtzaroa gorabeherarik gabe igaro zela eskolaren, etxeko beheko solairuan zegoen famili aroztegiaren eta Bidasoan nabigatzeko erabiltzen zituen txalupen artean. Unean uneko gertakari politikoe**k**, 1931ko Bigarren Errepublikaren aldarrikapenak kasu, etxean ez zuten aparteko gorabeherarik eragin. Familiaren konpromiso politikoa Eusko Langileen Alkartasunarekin (ELA) lotuta zegoen, sindikatu horretako kide baitzen Doroteo.

¹ María Concepción ("Conchita", 1922), Juan Mari (1924-1953), María Mercedes ("Mercedes", 1926), Joxe Manuel (1928-1988), María Gabina ("Maritxu", 1930-2006), María Teresa ("Maritere" 1932-1998) eta Miren Eduarda ("Miren", 1935).

Baina Agirre-Salaberriatarren bizimodu baketsua 1936ko uztailaren 18tik aurrera eten zen betiko, Espainiako armadaren zati handi batek Bigarren Errepublikak ekarritako aurrerapenak iraultzeko matxinada bultzatu zuenean.



Agirre Salaberria familia (Puri Etxepare Salaberria)

Abuztuaren amaieran borrokak Irun ingurura iritsi ziren eta iraileko lehen egunetan herritarrak Nazioarteko Zubia zeharkatzen hasi ziren, herriko kaletan izango ziren balizko borrokak izututa. Doroteo eta Raimundak ere, balak beren etxeko horman dilin-dalan hasi zirela ikusirik, aldi baterako izango zen irtenbide horren alde egin zuten, frontea etxetik urrundu arte behintzat.

Baina Léon Blum Frantziako lehen ministroak abuztuan emandako agindu baten ondorioz, Hendaian errefuxiatu zirenei bost eguneko epea eman zitzaien Espainiara itzultzeko edota, bestela, Garona eta Loira arteko departamentu batera urruntzea onartu behar zuten. Beraz, jendarmeek indarrez bereizi zituzten familiako kideak: adin militarrean zeuden bi gizonak, Doroteo eta Jose Mari, tren batean sartu eta Errepublikaren kontrolpean zegoen lurraldera bidali zituzten, Kataluniara. Raimunda eta gainerako zazpi seme-alabak, ordea, errefuxiatu multzo batean Poitiersera (Vienne), 470 kilometro iparraldera, burdinbidez eraman zituzten. Agirre-Salaberriatarrek beren borrodatearen aurka banatzen zituzten aldi berean, tropa matxinatuak 1936ko irailaren 4an sartu ziren Irunen.



Jose Mari, artilleriako milizianoa (Jose Maria Agirre).

Irundik Kataluniara halabeharrez joan behar izan zuten gizon gehienak Bartzelonako Carlos Marx kuartelean hartu eta, Errepublikako Herri Armadan sartu ondoren, frontera bidali zituzten. Doroteo eta Jose Mari, ordea, Montjuicen hartu zituzten, eta egun batzuk geroago Sant Pere Màrtir mendian zegoen aire defentsarako bateria batera bideratu zituzten, hiriburua tontorretik menderatzen zen lekura, Tibidabo parke ezagunaren inguruan. “«Us-tez» baino ez ginen aire defentsarako artilleria. Izan ere, kanoiak ezin zaharragoak ziren, seguru asko Napoleonen aurka erabili zituztenez izango ziren eraginkor” gogoratzen zuen Jose Mari aldi hartaz.

Bartzelonako egonaldiak txundituta utzi zuen hamazazpi urteko gaztea. Ez soilik halako hiri handi batera iristeak suposatzen zuen kontrasteagatik, baita bizitzea egokitu zitzaizkion gertaerengatik ere. Esate baterako, kuartel modura erabiltzen zuten finkaren kanpoaldean, guardia egiten ari zela, bizi izan zuen beldurrezko gau bat. Goizalde hartan motor-hotsa entzun zuen hurbiltzen. Handik gutxira, erabateko iluntasunean, fusil deskarga entzun zen inguruan. Izuak hartu zuen Jose Mari, mendian bakarrik baitzegoen. Ordubetera edo, berriro entzun zen motorraren hotsa, baina oraingoan urruntzen ari zen. Azkenik, egunsentian, “paseatuen” gorpuak topatu zituen izuturik.

Gaztea astindu zuen beste gertaera bat Buenaventura Durruti anarkistaren hileta jendetsua izan zen, CNTko iraultzaile ezagunarena, 1936ko azaroaren 23an Bartzelonako kaleetan txunditurik ikusi zuena.

Baina egun batzuk geroago, hegazkinen aurkako euskaldunen taldea Sant Feliu de Guíxols-a (Girona) lekualdatu zuten, Kostako Artilleriako 14. bateria-kide izan zitezen. Unitate hori laurogeita hamar euskaldunek eta berrogei katalanek osatzen zuten, kanoi zaharkitu eta balia gaitzez armaturik.



Jose Mari burkide errepublikazaleekin, artilleriako miliziano. (Jose Mari Agirre)

Beraz, 1937an zehar, itsasontziak eta hegazkinak zaintzeko behatoki bat erai-ki, guardia egin edo eta instrukzioa egitera mugatu ziren. Destino lasaia zen, baina Jose Marirentzat tragikoa ere izan zen: 1937ko maiatzaren 25ean aita Doroteoren heriotza gertatu zen, familiari inoiz argitu gabeko egoeran gerta-tua. Aitaren heriotzak oinazez urratu zuen Jose Mari eta ez zuen inoiz kontua azaldu nahi izan.

Jose Mariren 1937 eta 1938 bitarteko gerra-jarduera hutsaren hurrengoa izan zen. Nahiz eta 1938. urtearen hasieran 14.bateria desegin zen, bere egoe-ra ez zen aldatu urte horretan zehar. Berrikuntza bakarra arlo pertsonalean bizi izan zuen, garai hartan Marina García Rissech neska-laguna ezagutu bai-tzuen.

1939ko hasieran, Francoren tropek Katalunia konkistatu zuten eta, ondorioz, 500.000 pertsonen Frantziara ihes egin zuten, Iberiar Penintsularen histo-rian inoiz izan den exodorik handienean. Jose Marik muga zeharkatu zuen Portbouko pasabidetik otsailaren 5etik 9ra bitarteko uneraren batean eta, ja-rraian, Frantziako agintariak espainiar errepublikarrak giltzapetzeko Rose-longo hondartzetan inprobisatu zituzten konzentrazio-eremuetara eraman zuten. Jose Mariren kasuan, Saint-Cyprien sartu zuten lehendabizi, eta Argelès-sur-Mer-en gero. Errefuxiatuek bi eremuetan bizi izan zuten egoera muturrekoa izan zen; izan ere, aire zabalean lo egin behar izan zuten, elektri-zitaterik eta ur osasungarririk gabe, komunik gabe, 80.000 pertsona baino gehiago pilatu zirelarik Argelès-eko eremuan.

“Frantziako agintariak gaizkile eta infekziosoak bagina bezala portatu ziren gure-kin: hondartzetan zokoratu gintuzten, arantza-alanbrezko hesiz inguratu eta zain-tzaileak jarri zizkiguten inguruan, horietako asko senegaldarrak. Saint-Cyprien izan nintzen, otsaileko hotzetik babesteko aterperik gabe. Han lagun asko hil ziren hotzagarik edo beste beharrian batzuegatik” gogoratzen zuen Jose Marik.

1939ko apirilaren hasieran, Euzko Jaurlaritzaren aginduz, horrelako esparrue-tan zeuden euskaldunak Gursen (Basses-Pyrénées) eraikitzen ari ziren espa-rru edo zelai berrira eraman zituzten trenez, Zuberoatik kilometro gutxira. Jose Mariri hilaren 6ko konboian abiatzea egokitu zitzaion. Adin bereko mutil ezagutu berri bat zuen lagun, Frantziara iragaten ari zela mugako bidegu-rutzean ezagutu zuena: Marcelino Bilbao. Elkarrekin sartu ziren Gursen eta aurrerantzean barraka bera partekatuko zuten. Haiekin batera Jose Mariren Irungo zenbait lagun, hala nola Francisco Rodríguez eta Domínguez abizene-ko bat. Edo eta Marcelinoren beste ezagun batzuk, hala nola Angel Elejalde.



Jose Mari Agirre eta Marcelino Bilbao hurrenez hurren, Mauthausenen, espainiar errepublikarrei eskainitako monumentuaren aurrean. (Marcelino Bilbao)

Baina milaka errefuxiatu haiek buruhauste eta zama baino ez ziren Frantziako Gobernuarentzat. Gainera, asteek eta hilabeteek aurrera egin ahala, nazioarteko panorama zailtzen ari zen eta mundu mailako gerra berri bat gorpuzten ari zela zirudien. Beraz, Frantziako Gobernuak, ahalik eta errefuxiatu gehien gaintik kentzeko gestioak bizkortu egin zituen. Horrela, lehenik eta behin, aktiboki sustatu zuen errefuxiatuak Francoren Espainiara itzultzea. Ondoren, Hegoamerikako hirugarren herrialdeetara emigratzea erraztu zuen. Jarraian, industria zein nekazaritzan errefuxiatuak kontratatzea sustatu zuen, eskulan merke gisa. Eta, azkenik, 1939ko irailean, Bigarren Mundu Gerra piztu zenean, Frantziako armadan izena ematera behartu zituen.

Gurseko lagunaren artean, hainbat aukera hautatu zituzten: Rodriguezek eta Dominguezek Frantziako armadan eman zuten izen. Elejaldek eta Jose Mari Landetan egurgile gisa lan egitea onartu zuten. Eta Marcelino Mexikora emigratzen ahalegindu zen, baina arrakastarik izan ez eta, azkenean, egurgileen taldera batu zen. Beraz, 1939ko urriaren 12an, Elejalde, Marcelino eta Jose Mari Tarbeseko armadak Landetara joateko prestatu zuen trenera igo ziren. Hala ere, helmugara iristean ezustekoa galanta izan zuten, Septfondseko (Tarn-et-Garonne) kontzentrazio-eremura eraman zituztela konturatu baitziren.

Septfonds-en atxilotuek Gursen baino tratu gogorragoa jasotzen zutela konturatu ziren berehala. Izan ere, Frantziako agintariek armadan sartzeari uko egiten zieten errefuxiatu guztiak bildu zituzten esparru horretan. Beraz, lekuaren basakeriak bultzatuta, hiru adiskideek armadan izena ematea erabaki zuten, eta handik lehenbailehen alde egitea.

1939ko urriaren 25ean, hiru lagunak, beste 2.500 errepublikano espainiarrekin batera Maginot Lerrera eramango zituen trenera igo ziren, frantziarrak Alemaniarekin zuten mugan eraikitzen ari ziren defentsa-sistemara. Konboia Suippeseko (Marne) kanpamendu militarrean gelditu zen egun batzuetarako, eta han hiru lagunak 26^º Atzerriko Langileen Konpainian sartu ziren. Egun batzuk geroago, bidaiarekin jarraitu zuten, eta azaroaren 24an Faulquemontera (Moselle) iritsi ziren, elementu militarrek eraikitzeko lanak egin beharko zituzten lekura. Zehazki, Folschviller, Altviller, Pontpierre, Saint-Avold eta Sarreguemines herriek osatutako lerroan esku hartu zuen.


Sei hilabetez Espainiako Errepublikako errefuxiatuak gotortze-lanetan aritu ziren, amorrutzatzen zituzten militar frantsesen begiradapean. Han, hiru-ko euskaldunari bi asturiar batu zitzaizkien, Emilio Valdajos eta Emilio Puente, etorkizun hurbilean ibilbide berbera egingo zuen bosteko taldea osatu zelarik.

“Noizean behin, Frantziako hiruzpalau hegazkin ikusten genituen Maginot Lerroaren parera hurbiltzen, eta apustuak egiten genituen: «Ea gehiago aurreratzea lortzen duten!». Baita zera ere! Handik gutxira, lehenengoa behera botatzen zuten, bigarrena Belgika aldera uxatzen zuten, hirugarrena ere noraezean... Beraz, gerra galdu egingo zela ondorioztatu genuen. Bagenekien frantsesek ezingo zutela inoiz irabazi. Baina oraindik ez genuen ondorenaren ardurarik. Ez genekien gurekin zer gertatuko zen eta ez genuen horretan pentsatzen”.

1940ko ekainaren lehen egunetan naziek Maginot Lerroari eraso zioten. Jose Mari eta bere lagunak aire bonbardaketa bortitzak jasaten hasi ziren. Baina ustekaberik handiena espero gabeko aldetik etorri zen: Elejalde konturatu zen zaintzaile lanetan edukitzen zituzten soldadu frantsesek ihes egin zutela gauerdian. Beraz, bere lagun taldea iratzarri eta hauek lagunkideei deitu zieten, denek batera erretiratze zoro bati ekinez. Hala ere, alemanen “tximista gerra” euren ihesaldia baino bizkorragoa zen eta laster Epinal (Vosges) hiriren bueltan inguratu zituzten, Thaon-les-Vosges herrian preso hartu zituztelarik. Guztira, 3.000.000 soldadu aliatu baino gehiago harrapatu zituzten.

Eta Frantziak, garaiturik, herrialdea bitan banatzen zuen armistizioa sinatu zuen.

Atxilotu ondoren, Jose Mari eta bere lagunak behin-behineko esparruetan espetxeratu zituzten. Egun batzuk geroago, Estrasburgora (Bas-Rhin) ehun kilometro baino gehiagora oinez eraman zituzten. Frantziako hirian, naziek hainbat lekutan sartu zituzten presoak: adibidez, Jose Mari erakusketa-areto bat gogoratzen zuen, eta beste lagun batzuek antzinako kuartelak aipatzen zituzten, baita futbol-zelaia ere. Gatibualdian, Jose Mari eta Marcelinok boluntario gisa eskaini zuten euren burua Alemaniako armadaren portu-lanetarako, bizi-kalitate hobea izango zutena esperantzaz. Izan ere, kontuan izan behar da Rhin ibaiaren portuan zentralizatzen zutela alemanek Frantzian lapurtzen zuten guztia, hala nola artelanak, altzariak, xanpaina edo edozein elikagai mota.



Mauthausengo esparruaren egungo egoera (www.mauthausen-memorial.org)

1940ko irailaren 25ean, Hirugarren Reicheko buruzagitzak espainiar errepublikarrak kondenatuko zituen agindua eman zuen: 1936ko gerran Errepublikaren alde armak hartu zituen oro kontzentrazio-esparruetara eraman behar zen. Horregatik, abenduaren 11n, Estrasburgon zeuden errepublikar espainiarrak alboratu egin zituzten preso frantses, belgiar edo britainiarrengandik, eta futbol-zelaian zentralizatu zituzten. Egun hartako iluntzean, presoak argibide berrien zain zeudela, SS soldadu talde bat, zakurrez lagundurik, barrutian sartu zen kolpera: zakurren haginkada amorragarriek eta soldaduen kolpe bortitzek erabat izutu zituzten. Ondoren, tren-geltokira eraman zituzten, eta Jose Mari norabide ezezaguneko konboi batera igo zen.

"Handik atera gintuztenean, preso frantsesengandik aldenduz, zerbait okertzen ari zela sumatu genuen. Trenera iristean animalientzako bagoietan sartu gintuzten, giltzapetu, eta aurrerantzean ordu asko eman genituen bertan, agian bi egun eta bi gau luze, han itxita. Bata bestearen gainean, pilatuta. Gure beharrak egiteko ere ez geneukan katilurik. Ezta jateko ezer ere. Ez geneukan edateko, eta orduan bai, etorkizuna oso beltz agertu zitzaigun. Ez genekien nora gindoazen, baina patua ezin zitekeen ona izan. Harik eta Mauthausen izeneko herri batean geratu ginen arte. Hura munduaren amaiera izan zen!"

Egun eta erdiko bidaiaren ondoren, 847 atxilotu zeramatzan trena izenez ezezaguna zen geltoki batera iritsi zen: Mauthausen-a. Jose Marik berrogeita hamalau hilabeteko infernua jasan beharko zuen lekura. Amets gaiztoa, heriotza-kondena, 4553 zenbakian iltzatu zitzaion bertan. 1940ko Abenduaren 13ko goizaldean, jantzietan «S» bat josi behar izan zuten denek, spanier edo "espainiar" hitzaren laburdura. Letra horrek, 4553 zenbakiarekin batera, barruti hartako hierarkian sailkatzen zuen Jose Mari: ezagutza militarra zuen errepublikar espainiarra, berehala akabatu beharrekoa.

Alemania naziko kontzentrazio-esparruak 3.000.000 judu hil zituzten gas-ganbarekin lotu ohi dira. Hala ere, gaseatze masiboa 1942tik aurrera jarri zen martxan. Beraz, Jose Marik ezagutu zuen eremuak beste era batera akabatzeko zituen pertsonak: presoaren muturreko ahidura edo nekearen bidez. Harrobiko lan nekagarriak ziren higadura horren elementu garrantzitsuenetako bat, eta Jose Marik urte eta erdiz jardun behar izan zuen horretan. Gosete kroniko eta programatua zen beste eragileetako bat. Neguan zero azpitik 20º izatera iristen den ingurunerako janzkera hutsala ere aipatzea merezi du. Eta giza pilaketa masiboa eta higiene ezak eragindako gaixotasunek ere gogor jotzen zuen presoaren osasunean. Faktore horietako asko pilatuta gertatu ziren hilketarik gehienak.

Jose Marik gogoratzen zuenez, "Mauthausen inork ez zuen bizirik iraun behar bospasei hilabete baino gehiago, nekeak jota hiltzea zegoen, edo elurretan eta euripeanorduak emanda, harrobiaren hondora amilduarazi ez bazintuzten, alanbre-hesi elektrifikatura bultzatu ez bazintuzten, makilakaden ondorioz hil ez bazintuzten; bizirik irautea lortu bazenuen, hautaketa froga batean parte hartu behar zenuen: esparruko preso guztiak hamarnan hamarnanlerroetan jartzen gintuzten, txikienetik handienera, azterketa fisikoa egiteko asmoz. Gaixorik zegoenari heriotza-zigorra ezartzen zioten, nahiz eta heriotza-zigorra etengabea izan! Nire lehenengo azterketan masailak estutu

nituen eskuekingorri-gorri egin arte, n azal osasuntsua nuela ikustarazteko, eta baliteke orduantxe bizia salbatzea horrexegatik”.



Deportatuak Mauthausengo esparruan. (www.mauthausen-memorial.org)

Baina Mauthausenen presoaren biziraupena halabehar hutsezko kontua zen. Inork ez zuen lortu berez gaitasuna zuelako. Eta Jose Mari ere hiltzeko zorian egon zen behin baino gehiagotan: “Erisipela gaixotasuna harrapatu nuen esparruan. Orduan, erizaindegira eraman ninduten. Baina leku hori ez zegoen pentsatuta gaixoak zaintzeko, baizik eta haien doktoreen ikasketa-eskola gisa, gurekin frogak egiten zituzten eta. Eta jakin genuen jendea desagerarazteko baliabideetako bat bihotzean gasolina injektatzea zela. Orduan, erizaindegian nengoela, injekzio bat prestatzen hasi ziren eta urkamendira kondenatutako bati soka jartzen diotenean antzerakoa izan zen. Nik ez dakit une horretan pentsatzen den, pentsatzen ez den, burua nahasten zaizun... Kontua da mediku lanetan ziharduen presoak katalana zela, Pedro Freixa, eta esan zidan: «Agirre, ez kezkatu». Orduan injekzioa eman zidaten, gero pixa gorri-gorri egin nuen, eta erizaindegi-barrakara eraman ninduten, gorpuak garraiatzen ibili beharrik ez izateko errausketa-labearen ondoan eraiki zen gelara. Han hildako batekin ohea konpartitzen jarri ninduten, eta harekin egon nintzen egun oso batez. Kiratsa arnastezina zen, denak hiltzorian zeudelako, eta bitartean «ama» hitza hizkuntza mordo batean izendatzen entzuten nuen: «mutter», «matia», «amatxo», hiltzen ari zirenak, oroitzapenei heltzen baitzieten. Orduan salbatu nintzen, eta ez dakit nola. Baliteke Freixak nigatik esku hartu izana”.

Jose Marirekin batera Mauthausenen sartu ziren presoek hiru laurdenak hil egin ziren. Adibidez, Francisco Rodriguez edo eta Angel Elejalde. Baita bere lagun Valdajos ere: “SSek esperimentuak egiten zituztela zioten zurrumurruek. Eta gero jakin zen hala izan zela. Izan ere, Bayern etxeak eta horietako askok sendagai eta teknikari aurreratuak badituzte, untxien ordez lehen eskuko materiala zutelako izan da. Valdajos lagunaz gogoratzen naiz. Nahiko ahul zegoen. Barrakaren kanpoaldean lotu zuten neguan eta ur ontziak botatzen zizkioten, eta bitartean pultsua, taupadak eta abar neurtzen zizkioten hil zen arte, jakina. Iparraldeko itsasoetan erortzen ziren marinelek eta hegazkinlariek nola erreakzionatzen zuten jakiteko asmotan egin omen zuten hura”.



Infernutik bizirik irtetea ameskeria iruditzen zitzaion. Zentzu horretan, Jose Mariri lagundu zion faktoreetako bat alemanieraz hitz egiten ikasi izana izan zen. Bere gatibualdian, Jose Marik alemanieraz hitz egiten ikasi zuen, eta 1942ko maiatzean, zorte handiz, esparrutik urrun erai-kuntza-lanak egiten zituzten langile espezializatuen talde batean interprete gisa jarduteko hautatu zuten: Cesar kommandoan. Cesar Orquin kapo valentziarrak zuzendutako kommando honek Vöcklabruck, Ternberg eta Redl-Zipf (Schlier) herrietan lan egin zuen 1942-1945 aldian. Bertako kideek udalbatza, konpainia pribatu edo Gerra Ministerioarentzat kualifikazio handi-

ko lanak egiten zituzten eta horrek bizitza eta elikadura-baldintza hobekuntza zekarren. “Vöcklabrucken zubi baten eraikuntzan ziharduen lan talde baten ardura nuen”, gogoratzen zuen Jose Marik, eta Redl-Zipfen “tunelak egiten genituen mendian, barruan gerra-armak egiteko, bonbardaketetatik salbu”. Zalantzarik gabe, talde horretako kide izatea funtsezkoa izan zen bizirik irauteko. (Argazkia Mauthausengo harrobiko zorigaitzoko eskaileretan gora deportatuak behartutako lanen ostean harriak igotzen. (www.mauthausen-memorial.org))

1945eko maiatzaren 2an, aliatuen eta sobietarren tropek aurrera egin zutenean, naziek Redl-Zipfetik Ebenseeko azpierzura eraman zituzten taldekideak. Lekualdatzean, Jose Mari beste lagun batzuekin ihes egin eta inguruko mendietan ezkutatu ahal izan zen. Maiatzaren 6an, Ebenseeko esparruaren askapenarekin, amesgaiztoa amaitu zen.



1945eko maiatzaren 5ean askatu zuten esparrua antifaxistek. (www.mauthausen-memorial.org)

Hala ere, presoak etxerantz abiatu zirenean, artean argitzeke zegoen espainiar errepublikar «aberrigabeen» etorkizuna. Izan ere, hasiera batean, ezein herrialdek ez zuen haien kargu egin nahi izan, eta ez zirudien haien egoera arautzeko borondaterik zegoenik ere. Berririo babesik gabe zeuden. Eta Jose Mariaren desmoralizazioa hain zen handia, ezen bere buruaz beste egitekotan egon zela. Zorionez, handik gutxira Frantziak onartu egin zuen haiek hartzea, talde hura herrialdearen defentsan egin baitzuten preso. Beraz, Jose Mari hegazkin militar batean eraman zuten Parisera, eta Lutetia hotelera eraman zuten. Bertan, bizirik zeudenei legezko egoera erregularizatzen zitzairen, azterketa medikoa egiten zitzairen, hainbat galdeketa egiten zitzairen balizko nazien kolaborazionistek ihes egin ez zezaten, eta abar.

Amesgaiztoa 1945eko ekainean amaitu omen zen, bost urteren ondoren Jose Mari bere ama eta anai arrebeekin Châtellerault-en (Vienne) elkartu zenean. Ordurako bederatzi urte igaro ziren Irungo etxetik pare bat egunerako irten zirenetik. Tarte horretan, anai-arreba gazteenak frantsestu egin ziren, eta Juan Mari erresistente aritu zen okupazioan. Baina Jose Marirentzat oinazea amaitu gabe zegoen, apaldu baino ez zen egin: askatasunera egokitu ezinik, bolada luze batean familiaren etxe inguruan ibili ohi zen noraezean, oroitzapenei aurre egin ezinik, iparra erabat galdurik. Gainera, Marcelino bere laguna agertu zen etxean, nora joan ez zekiela. Jar gaitezen haren azalean; imajina al daiteke horrelako oinazerik?



Jose Mari Agirre Salaberria eta Marina García Rissech (Puri Etxepare Salaberria)

Aldi baten ondoren, Jose Marik bere onera bueltatzea lortu zuen. Bere lagun Marcelino arreba Mercedesekin ezkondu zen eta 1948an Marina neska-laguna Châtelleraulten agertu zen elkartzeko asmoz. Behin ezkondua, bikoteak Maria Elisa txikia izango zuen.

Jose Mariren bizitzan azken aldaketa nabarmena 1953an gertatu zen. Deportazioko kide ohi batek aholkatuta, Marinarekin Balear Uharteetara joatea erabaki zuten, Palmara, turismoaren sektore hasiberrian lan egiteko asmoz. Frantsesa eta alemana menderatzea oso ondo baloratutako dohainak ziren,

eta hala joan zen Zaida hotela zuzentzera. Gainera, tarte libreetan, frontoian jokatzeko pilotan, eta kirol horren oso zale egin zen.

Palman Jose Marik bere bizitza berreraiki zuen. Han aurkitu zuen gaztaroan izan ez zuen beharrezko sosegu eta egonkortasuna. Bere azken urteetan, bere lagun eta bikotekide Sarah Bajarrekin partekatu zuen bere egunerokotasuna, baita bere lagun konpainiarekin ere. Umore handiz, zeukana partekatuz.



Marina eta Jose Mari, Puri Etxepare Salaberria lehengusinarekin (Puri Etxepare Salaberria)

1945eko azaroan, Hirugarren Reicheko agintariak Nurembergen epaitzeak hein batean Jose Mariren justiziarako nahia asetzen lagundu zuen; aldiz, benetako erreparazioa, urte luzeez gogoan gordeta izan zuen zama kanporatu eta ingurukoei zein herritarrei transmititzeak eskaini zion. Bizitakoari hitzak jarri eta gainerakoengandik babesa eta maitasuna jasotzeak, babes hark, Jose Mariri atzera begira baino, bizitzaz, zuen harekin, momentuaz, bizi eta gozatzeko nahia ekarri zion azken urteetan. Izan bedi gure omenalditxoare, bizitzeko, pertsonen bizi proiektuak garatzeko eskubidearen aldarri. Memoria kolektiboan, memoria osoan, Jose Marik transmititutakoak bere lekua izan dezan.



Jose Mari Palmako "Balear" frontoian (Sara Bajar Chemorin)

Laboa eta Sarrionaindiaren sarrerako poemak dioen bezala, nekez uzten du sorterria, sustraiak han dituenak; Jose Mari ez zuten ohol egin, txakur amorratuek ez zizkioten begi niniak erausi, zeren bere izerdiaren gezalak indartuko zuen, basamortuko harri astun haien eguneroko lakartasunean. Inguru haietako elurte zuriek baina, udaberriko liliak erneko zituen eta lili haiek, haurtzaroko belardiak, haurtzaroko oroitzapenak. Askatasuna mugatu bazioten ere, berak haurtzaroko bildots librean korrikaldien oroitzapenak amets, biziaren azkenetan, Palman (Balear Uharteak), haurtzarora egingo zuen ihes; sorterriko zelaietara, inongo zapaltzaileek, ezertara ere ezin desegin baititzakete norbanakoak askatasunean bizitakoak.

Bibliografia, filmografia eta diskografia

- Chueca Inchusta, Josu. Gurs. El Campo Vasco. Txalaparta, Tafalla, 2006.
- Echave, Pedro. Memòria i oblit d'una guerra. Cinética Produccions-ek Radiotelevisió de les Illes Balears-entzat (IB3), 2008, 36 atala. Iraupena: 36 min.
- Gallart Vivé, Ernest. El kommando César: los republicanos españoles en el sistema concentracionario del KL Mauthausen. Asociación para el Estudio de la Deportación y el Exilio Español, Móstoles, 2011.
- Galparsoro Ansola, Etxahun. Bilbao en Mauthausen: memorias de un deportado vasco. Crítica, Barcelona, 2020.
- Galparsoro Ansola, Etxahun. La deportación de los vascos a los campos del Tercer Reich (1940-1945). Gogora (Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos del Gobierno Vasco), Bilbao, 2020.
- Jiménez, Ángel. "Artillers bàscos i catalans a Sant Feliu de Guíxols", Revista de Girona, nº130, 1988.
- Juaristi Larrinaga, Patxi. Markinako frontea: Markinako eta Xemeingo egoera politikoa eta soziala Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean (1931-1939). Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao, 2011.
- Laboa, Mikel. "Sustraiak han dituenak", Xoriek 17. Elkar, 2005.
- Vivanco, Karmelo (zuzendaria). Núremberg: testigos de cargo. Baleukok Euskal Telebistarentzat (ETB), 1995. Iraupena: 55 min.

the 1990s, the number of people in the UK who are aged 65 and over has increased by 1.5 million, and the number of people aged 75 and over has increased by 1.2 million (Office of National Statistics 2000). The number of people aged 65 and over is projected to increase to 10.5 million by 2026, and the number of people aged 75 and over to 6.5 million (Office of National Statistics 2000).

There is a growing awareness of the need to develop strategies to meet the needs of the ageing population. The Department of Health (1999) has published a strategy for ageing, which sets out the government's commitment to improve the lives of older people. The strategy is based on three main principles: (1) to ensure that older people have the opportunity to live independently and actively; (2) to ensure that older people have access to the services and support they need; and (3) to ensure that older people are treated with respect and dignity.

The strategy is based on the following assumptions: (1) that older people are a diverse group with different needs and interests; (2) that older people have the right to live independently and actively; (3) that older people have the right to access the services and support they need; and (4) that older people are treated with respect and dignity. The strategy sets out a range of measures to be taken to improve the lives of older people, including: (1) to improve the physical environment; (2) to improve the social environment; (3) to improve the financial environment; and (4) to improve the health and social care environment.

The strategy is based on the following principles: (1) to ensure that older people have the opportunity to live independently and actively; (2) to ensure that older people have access to the services and support they need; and (3) to ensure that older people are treated with respect and dignity. The strategy sets out a range of measures to be taken to improve the lives of older people, including: (1) to improve the physical environment; (2) to improve the social environment; (3) to improve the financial environment; and (4) to improve the health and social care environment.

The strategy is based on the following assumptions: (1) that older people are a diverse group with different needs and interests; (2) that older people have the right to live independently and actively; (3) that older people have the right to access the services and support they need; and (4) that older people are treated with respect and dignity. The strategy sets out a range of measures to be taken to improve the lives of older people, including: (1) to improve the physical environment; (2) to improve the social environment; (3) to improve the financial environment; and (4) to improve the health and social care environment.

The strategy is based on the following principles: (1) to ensure that older people have the opportunity to live independently and actively; (2) to ensure that older people have access to the services and support they need; and (3) to ensure that older people are treated with respect and dignity. The strategy sets out a range of measures to be taken to improve the lives of older people, including: (1) to improve the physical environment; (2) to improve the social environment; (3) to improve the financial environment; and (4) to improve the health and social care environment.

The strategy is based on the following assumptions: (1) that older people are a diverse group with different needs and interests; (2) that older people have the right to live independently and actively; (3) that older people have the right to access the services and support they need; and (4) that older people are treated with respect and dignity. The strategy sets out a range of measures to be taken to improve the lives of older people, including: (1) to improve the physical environment; (2) to improve the social environment; (3) to improve the financial environment; and (4) to improve the health and social care environment.

The strategy is based on the following principles: (1) to ensure that older people have the opportunity to live independently and actively; (2) to ensure that older people have access to the services and support they need; and (3) to ensure that older people are treated with respect and dignity. The strategy sets out a range of measures to be taken to improve the lives of older people, including: (1) to improve the physical environment; (2) to improve the social environment; (3) to improve the financial environment; and (4) to improve the health and social care environment.

The strategy is based on the following assumptions: (1) that older people are a diverse group with different needs and interests; (2) that older people have the right to live independently and actively; (3) that older people have the right to access the services and support they need; and (4) that older people are treated with respect and dignity. The strategy sets out a range of measures to be taken to improve the lives of older people, including: (1) to improve the physical environment; (2) to improve the social environment; (3) to improve the financial environment; and (4) to improve the health and social care environment.



www.ahaztuenoroimena.com

